

Noaua!!!

www.noaua.com



Bigarren geratu bada ere, pozik dago Lur Ibarra abenturazalea



Jai giroan murgiltzeko garaia

USURBIL

OPTIKA

943 370 269

MERKEALDI
-10% -20%

El deber de
mirar

- Audifono personalizatuak.
- Uretako tapoiak.
- Eguzkitako betaurrekotan beherapenak.

50€-ko BALEA

BETAURREKO PROGRESIBOETAN (HOYA)

Zubiaurrenea 10 USURBIL
© 943 370 269 eta 675 708 654

BEHERAPENAK -%30

Marije
Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

© 943 36 46 00

www.lhusurbil.com

Erdi eta goi mailako zikloak A eta D Ereduak

Administratiboa



Elektrizitate-elektronika



Fabrikazio mekanikoa



Ura eta energia
Produktzio zerbitzu eta manten.



Honako honen bila bazabiltza: Kalitatezko irakaskuntza, lanpostu bat topatzeko erraztasuna, enpresa praktikak, atzerrian praktikak, ekipamendurik berriena.

MATRIKULA ZABALIK uztailaren 4tik 8ra



Albiste iruditan!

Flash mob-aren erritmora hasiko dira Santixabelak

Usurbil Zero Zabor taldekoek piztuko dute aurtengo jaietako txupinazoa. Jai Batzordeak hondakinen gaian egindako lana omen-du nahi diete modu horretan. Txupinazoa jaurtiko dute bai, baina dantzari noski. Errausketaren aurka, Zubietan martxoaren 20an grabatu zen "Hartu nahi dut arnas" izeneko flash mob-a dantzatzeko aukera izango da eta jaien hasieran. UZZ-tik herritarrei, "nahi duen orori dei egiten diogu gure oroitzapenean gordeta geratu den une hori biziberritzeko aukera hau baliatu eta jaien hasiera elkarrekin goatzera etor dadin". Hitzordua, ostegunean, ekainaren 30ean 20:00etan Dema plazan.



"HARTU NAHI DUT ARNAS" DANTZATUKO DA OSTEGUN HONETAN, 20:00ETAN.

Telefono interesgarriak

| | | | | | |
|---------------------------|-------------|-----------------------------|-------------|--------------------------|-------------|
| Udala | 943 371 951 | Sutegi Udal Liburutegia | 943 360 692 | DYA | 943 464 622 |
| Atez ateko bulegoa | 900 776 776 | Zumarte Musika Eskola | 943 371 594 | Gurutze Gorria | 943 272 222 |
| Udaltzaingoa | 943 361 112 | Etumeta AEK Euskaltegia | 943 372 001 | Emergentziak | 112 |
| Udal zerbitzuak (Brigada) | 943 370 148 | Kalezar Egunekeo Zentroa | 943 365 249 | Gonzalez Ehorztetxea | 943 362 163 |
| Gizarte Zerbitzuak | 943 377 110 | Gure Pakea Zahar Egoitza | 943 368 770 | Gipuzkoa Donostia Kutxa | 943 361 202 |
| Diputazioa - Basetxea | 943 361 215 | Gure Elkartea Zahar Egoitza | 943 371 751 | Euskadiko Kutxa-Laborala | 943 364 740 |
| Bake Epaitegia | 943 372 336 | Arrate Zahar Egoitza | 943 366 340 | Banco Guipuzcoano | 943 370 006 |
| Udarregi Ikastola | 943 361 216 | Taxia (Angel) | 607 928 770 | Banco Popular Español | 943 370 411 |
| Haur Eskola | 943 374 061 | Taxia (Joxe Kruz) | 677 373 466 | BBVA | 943 377 155 |
| Zubietako Lanbide Eskola | 943 364 600 | Eusko Tren | 943 470 976 | Caja Rural Kutxa | 943 368 842 |
| Zubietako Herri Batzarra | 943 372 077 | Korreos - posta zerbitzua | 943 362 894 | Argindarra - Iberdrola | 901 202 020 |
| Hastapen tailerrak | 943 360 465 | Anbulategia | 943 362 013 | Gas naturala - Naturgas | 902 123 456 |
| KZgunea | 943 570 999 | Oa botika | 943 376 076 | Telefonica | 1004 |
| Oiardo Kirolegia | 943 372 498 | Iturralde botika | 943 363 395 | Euskaltel | 900 840 840 |

Noaua!

NOUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil 943 36 03 21 / elkartea@noaua.com / www.noaua.com

Jendurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua. Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda. Idazkaria: Alaitz Aizpurua. Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com.

Erredakzio kontseilua, erredakzioa@noaua.com: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua. Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale. Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818. Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



MAIALEN UNANUE

Akabo!

Zenbat alditan desio izan ote nuen unibertsitate ikasketak amaitzea? Zenbat alditan damutu nintzen haiek –eta ez beste batzuk– aukeratzeaz? 5 urteren epean, ez nuke jakingo esaten. Egin beharreko lan eta azterketek suposatzen zuten ene buruhausterik handiena. Azken momentuko presioaren emozioa beti izan da protagonista. Eta beti, hurrengo ikasturtean gauzak ongi antolatuko ditudanaren pentsamendu tinkoa buruan.

Unibertsitatera iristen zara: behingoz, “nahi duzuna” ikasiko duzu. Dena da –erakundeari dagokionez– arrotza, urrunekoa, berria, ezezaguna zuretzat. Gezurra dirudien arren, konturatzen zara idazkariak ezer gutxi behar izan dutela lanpostu hura lortzeko, nahiz eta ezinbesteko baldintza bat bete behar duten lan gogorriari ekiteko. Ez da gaitasun bat, nortasunaren ezaugarri bat baizik: utikan atsegina edota lanean eraginkorra izatea. Baina positiboak izan gaitezen, eta esker diezaiegun idazkari maitagarriari bizitzari aurre egiteko behar beharrezkoa den barne-kemena ateratzen erakutsi izana.

XXI.mendean gaudenez, aparatu elektronikoak hil ala biziko bihurtzen dira unibertsitatean. Etxetik kanpo ikasten baduzu, ordenagailua eskura izatea –batez ere, eramangarria– ez da %100ean derrigorrezkoa. Ez badaukazu, lasai asko eman ditzakezu egunak anbienterik onena duten fakultateko ordenagailu giletan. USB memoriak, txikiak izanik ere, ikasleonek lagun

min bihurtzen dira. Oso fidelak izan ohi dira, baina hura etxean ahaztu, galdu edota birusen batek barneko informazioa goitik behera ezabatzen badizu, zureak egin du. Azkenik, badira Interneten hainbat plataforma non irakasleek izugarri ondo pasatzen duten: apunteak, etxeko lanak... jartzen dituzte bertan ikasle guztiak eskura ditzaten. Orokorrean, patxadaz hartzen dute kontua eta, agian, gaueko hamaiketan eskegitzen dute bertan hurrengo egunerako etxerako lanen bat. Benetan dibertigarria da klasera sartu eta “Ekasin –plataforma horietako bat– jarri nuen, eh?” esaten dutenean. Oso.

Dena dela, zertarako ezkuta, unibertsitateko urteak onenak dira. Jende ezberdin asko ezagutzeko aukera dago, kritikoa izaten laguntzen du eta, oro har, esperientzia aberasgarria da oso. Gizartean duen funtzioa benetan da garrantzitsua, argi baitago gizarte ikasiak aukera gehiago izango dituela garapen propiorako. Horregatik, ez dakit grazia edota negargura eragiten didan Bolonia prozesuarekin egiten ari direnak. Garestitu ditzagun matrikulak, eta ikus dezagun urte zenbat matrikulatzen diren unibertsitatean. Unibertsitatea gizarteari jakintza eskaintzeko iritsi zen, eta behin dinamika horretan sartuta, jada ez zaie batera axola unibertsitateak bere hastapenetan zituen helburuak. Zertarako kexatuko gara ba, hariak mugitzen dituztenek nahi dutena egiten dute eta. Piztu dezagun telebista eta sintonizatu dezagun *telezirko*.

Maialen Unanue - Luis Aranalde - Ugaitz Agirre - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Joxe Piñas - Imanol Ubeda - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!K ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: uztaileak 8. Idatzia ekartzeko azken eguna: uztaileak 4.

* Ezizena ere onartzen da, baina idatziaren egile den gizabanakoaren NA edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da Ika-mikarako idatzia (Ika-mika araudia, NOAUA! astekaria)

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA
OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

BENTA TABERNA
HANBURGESAK
Oilasko erreak
Ogitartekoak
943 36 93 05


ARRANDEGIA
PELLO
 Puntapax Kalea,7
 TIF 36 21 64
 USURBIL

Elkarlana eta parte hartzea bultzatu nahi da

Udala, eragile eta herritarren biltoki eta lehen hartu ematen gunean bilakatu zen Sutegiko erakusketa aretoa, joan den astelehenean. Gobernu talde berriak legegintzaldiko lehen ekitaldia deitua zuen kultur etxean; batzar irekia. Ezohiko irudia utzi zuen ekitaldiak, herritarrekin batera, udalbatza berria osatzen duten udal ordezkari guztiak bertaratu baitziren Sutegira.

“Zuek duzue hitza, animatu zaitzete”, hitz hauekin herrigintzan parte hartzeko gonbidatu luzatu nahi izan zien Mertxe Aizpurua alkateak, joan den astelehenean Sutegiko erakusketa aretoan deitu zuten batzar irekira bertaratu zirenei. Elkarlanerako deia azken finean. Herritar eta eragileekin batera, ezohiko irudia utzi zuen 2011-2015 legegintzaldi berri honetan Udalak deitutako lehen ekitaldiak. Udalbatza osatzen duten talde guztietako kideak bertaratu ziren eta; Bilduko ordezkariekin batera, Aralar, Hamaikabat, EAJ-PNV eta PSE-EE-ko ordezkariak.

“Elkarlan oso batean”

Ekainaren 11n kargua hartu zuteneko ekitaldia ekarri zuen gogora Aizpurua. Nola aginte makilaren orde, aginte uztaia jaso zuen ordura arte alkatetzan zegoen Xabier Mikel Errekondoren eskutik. Uztai horrek duen esanahia Bildutik datozen lau urteotan bultzatu nahi duten lanketa moduarekin lotu zuen. Bere esanetan, aginte uztaia horren moduan, udal kudeaketak “apala eta malgua, baina aldi berean sendoa eta tinkoa”, izan behar duela zioen.

Aipatu moduan, parte hartzea eta elkarlanera deitu zituen herritarrek. Lehen hitzordurako deia ere egin zuen. Hain zuzen, batzar irekiaren bihamu-



MERTXE AIZPURUA ALKATEA, ASTELEHENEAN EGINDAKO ABERRALDIAN.

nean, ekainaren 28an burutzekoa baitzen legegintzaldi berriko lehen osoko ohiko bilkura, arratsaldeko 18:00etan udalbatza aretoan. Hitzordua bere horretan mantenduko dute baita batzordeetarako ere. Batzordeak beraz, arratsaldez burutuko dira aurrerantzean. Aste hasieran osatzeke zeuden zenbait batzorde eta eurretaz arduratuko diren buruak aurkeztu zituen alkateak. Eta kultur etxera gerturatu zirenak, bilguneotan parte hartzea deitu zituen. “Herriarentzat, herriarekin elkarlan oso batean lan egin nahi dugu. Zuen parte hartzea bultzatu nahi dugu”, adierazi zuen Aizpurua. Orain arte bezala, batzordeak irekiak izango dira aurrerantzean. Gobernu taldeak ordea, alor desberdinetako gaiak lantzen dituen bilgune hauetan herritar zein eragileen parte hartze eta elkarlana sustatu nahi du.

Batzar irekia luntx batekin borobildu zuten. Asteartean burutu zen osoko ohiko bilkuraren berri datorren astelehenean emango dugu. Lehen hitzordu hauekin, alkateak iragarri zuenez, “martxan da, udal batek duen prozedurarako maki-naria”.

Batzordeak

Gobernu talde berriak hainbat batzorde sortzea proposatu du. Aste honetako osoko bilkuran osatu eta onartzekoak ziren. Bezperan, asteleheneko batzarrean Mertxe Aizpurua alkateak haietako batzuk jendaurrean aurkeztu zituen. Baita nortzuk izango diren batzorde bakoitzeko buruak ere. Bada nabarmendu nahi izan zuten batzorde berri bat, espresuki parte hartzeari eskainia egongo dena:

-Nekazaritza eta Ingurumen batzordea: Pepe Rivadeneyra.

-Hezkuntza, Parekidetasuna eta Garapena: Enara Arbizu.

-Ongizatea eta Gizarte Politika: Jone Urdanpilleta.

-Kultura, Euskara eta Gazteria: Alaitz Aizpurua.

-Kirolak: Iñaki Ugarte.

-Hirigintza eta Zerbitzuak: Mertxe Aizpurua.

-Parte hartzea: Josu Portu.

KALITATERO EUSKAL OKELA

ALKORTA AUTOZERBITZUA

Frutak Barazkiak Etxeko produktuak Izoztuak

Beheko kalea, 4
Telf: 943 36 57 42

INTETXEA - TABERNA

BELARTZA

943 37 60 82

Eguneroko menuak eta larunbatetan menu bereziak

- Plater konbinatuak, otartekoak...
- Pintxoak, razioak...
- Urmeentzat menu bereziak
- Atesden egunak: larunbat gaua eta igandea

DECATHLONen ONDOAN
Poligono Belartza • Gurutzegi kalea, 15 • A4 Pabiloia • Donostia

Mertxe Aizpurua, alkatea: "Batzorde guztietara bertaratzeko deia egingo diogu jendeari"

Kargu berrian kokatzen, udala barrutik ezagutzen, eta aurrera begirako lana aztertzen igaro ditu lehen asteok, Mertxe Aizpurua ekainaren 11n datozen lau urteotarako hautatua izan zen Usurbilgo Udaleko alkate berriak. 2015era arte, parte hartzean eta herriar, eragile zein udal ordezkariekin elkarlanean oinarrituriko lan egiteko modu irekia izango dutela iragarri du. Lanotan etenaldia ere hartuko du egunotan, berarentzat desberdinak izango diren festetaz gozatzeko.

NOAUA! Lehen hamabostaldi hau zer moduz joan da?

Mertxe Aizpurua. Oso onak izan dira, erabat desberdinak. Udalbatza osatzeko plenoa ekitaldi polita izan zen. Asko gustatu zitzaidan. Ez nekien herriko agintarien ikurra uztaia zenik. Makila bat zelakoan nengoen baina oso gauza polita irudititu zait. Batez ere atzean daraman mezuagatik, malgutasunaren ideiatatik. Hortik aurrera, lehen egunak kokatzen pasa ditut. Aurkezten, bertako langileak ezagutzen. Neure lana hemendik aurrera nolakoa izango den, ideia egiten, horretan pasa dut denbora gehien.

N. Lehen ekitaldi publikoa ere burutu duzue, astelehenean egin zen batzar irekia. Eragile eta herritarrekin duzuen lehen hartu emana...

M. A. Oso berezia gainera. Pena da, presaren ondorioz denbora gehiagorekin deitu ez izana. Garrantzitsua iruditzen zitzaidun. Helburua, Udala nolabait jendaurrean herriratzea zen eta lehen unetik, eragile sozialekin hartu eman zuzenena izatea eta elkar ezagutzea. Zer batzorde izango diren aurkeztu ditugu. Arratsaldeko 18:00etan planteatzen ditugu egitea, batez ere usurbildarren partaidetza ahalik eta gehien errazteko. Gutxi edo gehiago, zein eremutan lan egingo duen zinegotzi bakoitzak banatua dago.

N. Zer beste ezaugarriekin definituko zenukete datozen lau urteotako lan egiteko modua?

M. A. Herriaren partaidetza sustatu nahi dugu. Batzorde bat eratuko dugu



MERTXE AIZPURUA, ALKATETZAKO BULEGDAN.

espresuki horretarako. Batzorde guztietara bertaratzeko deia egingo diogu jendeari. Lan egin edo etor dadila ikustera batzordeek nola funtzionatzen duten, irekiak izango dira. Hemen egongo gara, parte hartzeko eta beren iritziak azaltzeko tokia ezin hobea da. Horrez gain, elkarlana ere sustatu nahi dugu, politika egiteko beste modu bat, Usurbilen dauden beste alderdiekin ere. Gure aldetik eskaintza batzuk egon dira. Egin dugun planteamendua oso zabala izan da, erabat zabala. Hemendik aurrera, informazioa eta lan egiteko eran ere, irekiak izango gara. Eta aukera guztiak dituzte elkarrekin elkarlan bat gurekin ere herriaren aurrean aurrera eramanez nahi badute, bakoitzak bere ikuspegiak mantenduz, bakoitzak bere iritziak edo programa plazaratuz, baina modurik onenean. Herriaren aldeko ikuspegiak bultzatzen bagaitu, hori izango da ardatz nagusia eta modu onena gauzak ondo egiteko herri honetan.

N. Ba al da oraintxe epe motzean heldu beharko diozuen egitasmorik?

M. A. Ez. Eskertzekoa da, udaletxean sartu eta oraindik tamaina, neurria eta pulstua hartu ez diozun halako erakunde konplexu batean, denbora izatea gauzak lasai pentsatzeko, ze presaz harturiko erabakiak ez dira onak izaten, eta ahalik eta gutxiago, kontrolatzen ez duzun eremuan. Udal langileen aldetik ere, eskertzekoa da laguntzeko erakutsi duten asmoa.

"Tonu onez"

gainontzeko udal taldeekin

NOAUA! Gainerako udal taldeekin biltzeko aukera izan duzue?

Mertxe Aizpurua. Oso ondo guztiekin. Tonu onez, patxadaz eta lasai hitz egin dugu.

N. Etorkizuneko udalerrria marraztuko duen 2020 Usurbil egitasmoa lau urteotako erreferentzia modukoa ere izango da zuentzat?

M.A. Bai. Hor badira herriari harturiko pulsturekin bildu diren zenbait datu. Abiapuntu ederra da hortik aurrera egitasmoak bultzatzeko eta irizpide batzuk markatzeko. Askotan, udaletxeko lana zein den ere herritarrek ez dute oso garbi. Bada lan guztia alkate eta zinegotziak egiten dutela uste dutenik. Ez, hemen langile asko daude lan egiten dutenak. Politikarioi, gure programaren arabera, nolako herria nahi dugun, irizpide politikoak markatzea dagokigu. Orain harturiko erabaki batek baldintza dezake, herri baten garapena hemendik 50 eta 100 urtetara. Herri bat nolakoa nahi dugun jakin behar dugu, ondo pentsatu behar dugu eta horren arabera egin proiektuak.

“Kulturalki hemen dagoen indarra azalerazi eta ikusaraztea gustatuko litzaidake”

NOAUA! Ametsak irudikatze beharra azpimarratu izan duzu. Etorkizunerako nolako Usurbil amesten duzu zuk?

Mertxe Aizpurua. Usurbil bat, elkar-tasunean oinarriturikoa, errauskailurik gabea, garbia ere bai.

Kulturalki hemen dagoen indarra azalerazi eta ikusaraztea gustatuko litzaidake. Ez dakit beste herriren bat badagoen, hainbeste ekimen antolatzen dituenik. Guzti hauen indarrak batu behar dira eta irteera bat eman. Energia izugarria dago herri honetan.

Uste dut ni txikia nintzela nabaritu nuela, garai batean hemen Ez dok Amairuko taldekoak, Zumeta, Laboa, Artze anaiak... Guzti horien inguruan bildu zen halako energia bat, sortzailea eta iraultzailea. Herri hau desberdina da. Dagoen energia guztia atera behar da. Herri euskalduna, ondo biziko den.

ERRONKA

“Lehentasuna, gauzak ondo egitea da. Lau urte barru, esan dezadan gauzak ondo eta txukun egin ditugula”

N. Ogibidez kazetaria zara. Komunikazio alorrean jarria izango duzu agian begietako bat?

M.A. Ez dut horretan minutu erdi bat ere pentsatu. Seguru aski ondo kontrolatzen dudan eremua delako edo, neure burua behartzen dut kontrolatzen ez dudan horretan saiateraz. Egingo dugu zerbait, baina horrek ez digu beldurrik ematen. Komunikazioa ez da bakarrik, prentsaurrekoak ematea, gauzak egiteko modua baizik. Orain ikasi behar dudana da, ez dakidanari buruz eta horretan zentratu. Lehentasuna, gauzak ondo egitea da. Lau urte barru, esan dezadan gauzak, ondo eta txukun egin ditugula.



JAIETAKO EKITALDIETAN PARTE HARTZERA DEITU DITU HERRITARRAK.

N. Usurbil Gipuzkoan kokatuta, herrialde mailan gertatu den aldaketarekin, elkarlan aro berri bat hasiko da?

M.A. Ez bakarrik horretan. Aro berri bat hasten da guztiontzat, bai normaltasun politikoari begira. Gipuzkoan oso emaitza onak izan dira eta Usurbilen guztion onurarako izan-

go dira gainera. Horregatik, herri hau Euskal Herria beste eskenatoki politiko batean kokatzen gaitu, eta hori ona da guztiontzat.

Bestetik amankomunean lan egiteko, ikuspegi berdina egiteko, hainbat proiektu errazago aterako ditugu, beste egoera batean egongo bagina baino.

“Aukera dutenek jaiak topera gozatu eta parte har dezatela festan”

NOAUA! Herritar eta alkate moduan, zer modutan ospatuko dituzu datozen Santixabel hauek?

Mertxe Aizpurua. Zerrenda bat egingo dut, zer tokitara joan behar dudan. Anonimotasun hori galdu egingo dut. Desberdina izango da, baina oso pozik arituko naiz. Santixabelak beste ikuspegi batetik ikusiko ditut. Politika izango da. Adibidez, helduen bazkarira joango naiz. Ez nintzateke gerturatuko halako ekitaldi batera normalean, baina kuriozosa izango da. Munduak irekitzen dizkizu, aukera desberdinak. Oso kuriozosa naiz, gustatzen zait gauza berriak ezagutzea.

N. Santixabeletan gaude. Zer mezu helarazi nahi zenieke herritarrei?

M. A. Denbora gauza guztirako izaten da; lan egiteko, sufritzeko. Aukera dutenek, topera gozatu eta parte har dezatela festan. Aurrera begira ere, eta Euskal Herriko ikuspegia hartuta, badugu zer ospatua, une politikak dira.

Etorkizuna irekia dago, ospa dezagun. Eta ia aurrerantzean, guztiok, orain ezin dutenek ere festaz ospa dezaketen.

Poza orokorra da, eta sentitzen da, ia festa hau ere ospa dezagun guztiok, usurbildar guztiokin batera.

Hauek izan ziren lau bikote onenak San Joanetako mus txapelketan



BIKOTE HAUEK, SIKIERA, SARI BANAREKIN ETXERATU ZIREN.

Sutea igande goizaldean, Zendoia gainean



Igande goizaldeko 2:30ak aldera edo sutea izan zen, Kale Nagusiko Zendoia Itaberna gaineko lehen pisuan. Suhiltzaileen bi kamoi eta Ertzaintza bertaratu ziren. Sutea zerk eragin zuen ez dago argi.

Erabilitako testu liburuak ikastolan uzteko aukera

Aurten ikasleek erabili dituzten testu liburuak, irailetik aurrera beste ikasle batzuk erabiltzeko aukera izateko, deialdi berri bat egin du Udarregi ikastolako Hitz Aho guraso elkarteak. Uztailearen 4ra arte ikastolako barne patioa zabalik izango da, goizez 9:00-15:00 artean. Tarte horretan, erabilitako testu liburuak utzi ahal izango dira bertan, datorren ikasturtean aipatu moduan berrerabiltzeko. Deialdia bereziki, DBH-ko ikasle eta gurasoei egin nahi diete. Ikas materialaren berrerabilpena bultzatzeko "Liburutruk" ekimena ere martxan dute baita Hitz Ahokoek. Ekimen hauei buruzko informazio gehiago: hitzaho@udarregi.com

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz erregistratzea posible da jada Usurbilen

Bereziki haur jaioberrien gurasoek aspaldi eginiko eskaera eta salaketek erantzuna izan dute. Aurrerantzean, jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz erregistratzeko aukera izango da Usurbilgo Bake Epaitegian. Ekainaren 24az geroztik, halakorik egitea ahalbidetzen duen aplikazio informatikoa martxan dute bertan.

Borroka luzea izan da, baina eskatutakoa bete ahal izan da azkenean. Urte luzeko trabak gainditu eta joan den ekainaren 24az geroztik, beste zerbitzu bat euskaldundu da herrian; duela astebetetik, jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak euskaraz erregistratzeko aukera baitago Usurbilgo Bake Epaitegian.

BAKE EPAITEGIAN

“Euskarazko inskripzioak egiteko, Bake Epaitegia astean hirutan dago zabalik, goizez: 9:00-14:00”

Saiakera askoren ostean dator lorpena. Aplikazio informatiko bat besterik ez zen behar, inskripzioak euskaraz egin ahal izateko, baina traba tekniko hau konpontzek ak luze jo du eta horrek kexu ugari eragin du. Iazko iraila amaieran prentsaurrekoa eskaini zuen hain zuzen, haur jaioberriak zituen guraso talde batek. Usurbilen haurrak euskaraz inskribatzeko zegoen ezintasuna hedabideen aurrean salatu zuten. Orduko hartan, Usurbilgo Udalak, UEMA-k eta Behatokiak babesari adierazi eta guraso hauen salaketa hainbat erakun-



BORROKA LUZEA IZAN DA BAINA LORTU DA AZKENEAN.

deetara bideratu zuten. Gerora, 30 udal-tan baino gehiagotan neurriak hartzea eskatzen zuten mozioak aurkeztu eta onartu dira.

Joan den iraileko prentsaurrekoaren haritik, egun gutxira Eusko Jaurlaritzako lehendakari Patxi Lopezek egoera konponduta zegoela, eta honenbestez, bake epaitegietan erregistroak euskaraz egin ahal izango zirela zioen, baina ez zen halakorik gertatu. Martxoan, sei hilabete lehenago Usurbilen guraso talde batek eginiko salaketa bera egin zuten Euskal Herri mailako beste hainbat gurasok, euskarazko inskribapenak egitea ukatu zietela esanez. Horren aurrean Jaurlaritzak ez zuen inolako adierazpenik egin.

Epaitegia, astean hirutan

Euskarazko inskripzioak egiteko, Bake Epaitegia astean hirutan dago zabalik, astelehen, asteazken eta ostiral goizetan, 9:00-14:00 artean. Honakoa da bertako telefono zenbakia: 943 372 336.

Legea alde, baliabideak traba

Bake epaitegietako eta erregistro zibiletako jarduna 1957. urteko lege batek arautzen du. Hamarkada luzez, araudi horrek ez du aurreikusirik erdaraz ez zen beste hizkuntza batean erregistroak egiteko aukera. Egoera duela sei urte aldatu zen ordea, 2005. urtean legedi horren 23.artikulua aldatu zutenean. Orduetik, haurrak euskaraz, katalanez eta galegoz inskribatu daitezke. Legea aldeko izan arren ordea, gero praktikan legeak eskaintzen zuen eskubidea betetzeko trabak egon dira orain arte, baliabide teknikoak falta baitziren: inskripzioak euskaraz egin ahal izateko aplikazio informatikoa hain zuzen. Ondorioz, dozenaka gurasoren eskaerak ezeztatu dira.

Baina aipatu moduan, orain bai, Usurbilen behintzat tramiteok euskaraz ere egin daitezke.

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

TXAPELDUN
TABERNA
razioak
ogitartekoak
plater konbinatuak...
Muna lurre 2, 9+3 11 82 53

URDAINTZI
eraikuntzak
649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Lur Ibarra bigarren izan zen “El Conquistador...” telebista saioan “Oso gogorra da, baina merezi du”

Hautapen-probatik oso haserre ateratzen. Baina bere harridurarako, “El conquistador del fin del mundo” telebista saioan parte hartzeko hautatua izan zen. Eta irabazteko zorian izan da. Baina txapeldunorde geratu bada ere, pozik dago. NOAUA!ren bitartez, eskerrak eman nahi dizkie usurbildar guztiei.

NOAUA! Nolatan animatu zinen abentura honetan parte hartzera?

Lur Ibarra. Betidanik ikusi izan dut programa. Saio honen jarraitzaile izan naiz beti. Gure artean baziren programa ikusi ez zutenak baina nik urtero-urtero ikusi izan dut. Aurreko urtean casting-a (hautapen proba) ireki zenean, nire mutila oso animatuta zegoen eta esan nion, “ba zuk ematen baduzu izena nik ere bai”. Gure ideia zen biak batera joatea hara. Berak nik baino gogo gehiago zuen, baina berak etxean geratu behar izan zuen eta ni izan nintzen hautatua.



BIZKAIAN BIZI DA ETA BERTAN EGITEN DU LAN ASPALDI HONETAN.

LUR IBARRA

Hotzarekin asko sufritu nuen. Pare bat gau, hipotermiatik gertu egon nintzen”

N. Sorpresaz hartuko zenuen.

L. I. Kristoren sorpresa izan zen. Ez nuen espero, egia esan. Hautapen probatik nahikoa haserre ateratzen. Nesken gaiarekin zirikatzen izan ziren, batetik eta bestetik, eta casting-etik oso haserre ateratzen.

Hautapen proba hurbildu nintzenean, zera nuen buruan: “pentsatzen dudan guztia esango diet”. Ze aurreko edizioetako nesken maila ez zitzaidan oso ona iruditzen. Denetarik zegoen, baina bazela maila gehiago zuten neskak sartzeko garaia, gerra gehiago emateko. Hori esa-

tera joan nintzen casting-era. Sikiera entzun nazatela.

N. Nola gogoratzen duzu orain, orduko egonaldia hura?

L. I. Han egunez eguneko bizi duzu, baina lehiaketa amaitu eta gero, hona bueltatzean konturatu nintzen oso gogorra izan zela. Nik batez ere hotz asko pasa nuen. Mentalki fuertea izan behar duzu, ze ordu pilo bat dago ezer egin gabe. Hotzarekin asko sufritu nuen, pare bat gau hipotermiatik gertu egon nintzen. Nire pendiente egon behar izan zuten.

Ez duzu dutxa berorik, ez ezer. Arropa guztia janzten genuen eta hala ere gauean kristoren hotza pasatzen genuen.

Gosea ere ez dut aguantatzen baina gosea buruko gauza bat da eta tripa txikitu egiten da, baina hotzak ez dauka erremediorik. Eta gainera, oso argal geratu nintzen eta ez nuen energia gorputza berotzeko.

Hori ez da sikologikoa, horiek hitz potoloak dira.

N. Baina pozik esperientziarekin.

L. I. Bai bai, oso ona izan da. Jendearekin oso ondo eta talde majoa egin genuen, salbuespenak salbuespen. Merez du, egia esan.

N. Zer da gogorragoa, saioa bera ala ondorengo telebista bidezko jarraipen hori...

L. I. Telebistan, lehiaketara begira jarri eta ez zitzaidan iruditzen ni nintzenik. Beste urte batzuetan bezala ikusten nuen saioa, ia ia. Pena dut, ze bukaeraraino iritsi nintzen, ezin izan nuen joan telebistako eztabaidetara, batez ere hauek guztiak esplikatzeko. Jendeari azalpenak ematera eta guk pentsatzen dugun hori azaltzera. Eta jendeari eskerrak emateko.

Finalean izan ginenean baina oso laburra izan zen.

“Eskerrik asko nire jarraitzaile guztiei”

NOAUA! Lehiaketa amaitu ondoren, konfidentzialtasuna mantendu behar zenuten. Zaila izan al da?

Lur Ibarra. Hori izan da zailena sei hilabete hauetan. Lagun bati esaten nion, “daukat gogo bat bukatzeko dena”. Sei hilabete hauetan ez nekien zein aurpegi jarri. Mundu guztia, lehenbiziko galdera, “eta irabazi duzu?”. Eta segidan, “zeinek irabazi du?”. Eta ezin ezer esan. Autopistan ere, peajea galdezka, “nork irabazi du?”, baina ezin nuen ezer esan. Nire lagunek ere ez zekiten.

Zentzu horretan, gogorra izan da azkenean. Batez ere gertuko lagunekin. Nire mutilaren familiarekin berdin, ez zekielako ezer. Batzuk haserretu egiten ziren, ez zitzairen ondo iruditzen; ez zuten ulertzen, zergatik ezin nien irabazlearen berririk eman. Hori ere oso luze egin zait, ezin ezer kontatu.



USURBILDAR ASKOREN BOZKA
JASO ZUEN LUR IBARRAK.

LUR IBARRA

“Hurrengo abentura?
Ostiralean ezkonduko naiz!
Eta Tailandiara goaz,
motxilero moduan”

N. Herrian jarraitzaile asko izan dituzu. Asko izan dira telebistari begira izan direnak. Zer esango zenieke usurbildarrei?

L. I. Zuetako askok jarraitu nauzue igandero telebistan eta zuen jarraipen eta laguntza hori eskertu nahi dizuet.

Badakit urteak direla Usurbildik at bizi naizela baina badakit, gurasoen bitartez jakinarazi didazuelako, herriko jendearen aldetik babes handia eduki dudala. Eskerrik asko beraz nire jarraitzaile izateagatik, nigan jarri duzuen konfiantza izugarriarengatik eta nire alde bozkatzeagatik.

N. Dagoeneko, beste abentura bat izango duzu buruan...

L. I. Hurrengo abentura? Ostiralean ezkontzen naizela! (duela bi aste egin zen elkarrizketa hau). Tailandiara goaz irailean, *motxilero* moduan...

“Bigarren izan arren,
pozik nago Nakorrek
irabazi duelako”

NOAUA! Bizi esperientzia bezala, garaipenetik hain gertu egonda, pena hori izango duzu ezta?

Lur Ibarra. Ni joan nintzenean, irabazi egin nahi nuen, gainera neska batek irabazi behar zuela esanez joan nintzen, eta irabazle hori ni izan behar nuen! Baina errealista izan behar zara eta zorreak eta lesiorik ez edukitzeak garrantzia handia du. Zaila da finalera iristea eta konbinazio asko eman behar dira zu hor egoteko. Baina behin finalean, irabazi egin nahi nuen, noski baietz, baina hala ere pozik nago Nakorrek irabazi duelako. Merezki zuen irabaztea eta horregatik ni ere pozik nago. Bigarren izan naiz baina ondo.



IRABAZI EGIN NAHI ZUEN BAINA
POZIK DAGO HALA ERE.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
☎ 943 69 68 52 · 620 800 186



txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

Oilasko Biltzaileen Egunak ibilbide berria izango du aurtengoan

Ostiral honetan, uztailearen 1ean ospatuko da Oilasko Biltzaileen Eguna. Goizeko 5:30ean finkatu dute antolatzaileek biltzeko hitzordua. Gosaldu eta egunak argitzerako berehala irtengo dira kalejiran. Aurtengoan osatuko duten ibilbidea ordea, berria izango da. Iaz, Santuenea, Urdaiaga eta Txokoalde inguruak zeharkatu zituzten oilasko biltzaileek. Oraingoan ordea, Arratzain aldera joko dute eta Kapotzetik barrena, Kaxkora bueltatuko dira. Bazkaritarako bilduko dira gero, eta ondoren, hainbat jokoetan parte hartzeko aukera izango dute.



ARRATZAIN ALDERA JOKO DUTE ETA KAPOTZETIK BARRENA ITZULIKO DIRA GERO.

Skandalue elektro txarangaren saioa

Azken orduko aldaketa bat izango da Santixabel hauetan. Kanean den jai egitarauan aipatzen diren aurreikusitako ekitaldiei, beste hitzordu bat gehitu behar zaie. Igande arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Skandalue elektro-txaranga alaituko ditu afalaurreko orduak. Iaz Azpeitian sortu zen taldea, hain zuzen udalerrri hartako herriko jaietarako, San Inazioetarako. Ska estiloa jorratzen dute. Talde ezagunen abestien bertsoak joko dituzte Kaxko inguruan igandean burutuko duten kalejiran.

Bertsio gauean parte hartzeko aukera zabalik

Jaiak amaitzeko bertsio gaua antolatu da txosnetan. Herriko musika taldeetako kideek parte hartuko dute Askatasuna plazan ospatuko den ekitaldian, hori bai ordea, elkarren artean nahastuta. Antolatzaileek ordea, parte hartzeko aukera zabaldu nahi dute. Herriko talderen bateko kidea izan gabe, musika instrumenturen bat jo eta igande gauean burutuko den ekimean esku hartu nahi duenak, horretarako aukera izango du antolatzaileekin harremanetan jarrita: bertsio.gaua@hotmail.com.

Presoen eskubideen aldeko ekitaldia

Urtean zehar bezala, presoen eskubideen aldeko elkartasun ekimenek ez dute etenik. Santixabel hauetan, larunbatean, uztailearen 2an burutuko da ekitaldia. 20:00etatik aurrera, Askatasuna plazan.



20:00ETAN HASIKO DA.

LATAILLADE  **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Arlztitxo 8, behea - 943 363 348 - 809 888 021

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47, Behea A.
20170 USURBIL

Patri Jatetxea



K./nagusia 14. © 943 362 725

Asteburu bete ekitaldi

Iritsi dira. Azkenean. Santixabel jaiez gozatzeko aukera ugari lizango dira. Lau egunetan pilatu dira ekitaldi denak. Eta badira azken orduan iritsi diren proposamenak, patata tortila txapelketa adibidez.

Herriko gazte taldeak antolatu du patata tortila lehiaketa, ostiral honetarako. Ohartarazi dutenez, jakia egiteko oinarriko osagaiak eurek jarriko dituzte. Zartagina edota osagai gehigarriak aldiz, ekimenean parte hartzeko asmotan direnek eraman beharko dituzte.



OSTEGUN HONETAN, BERTSO-TRIKI POTEADA EGINGO DA 19:30ETIK AURRERA.

Santixabelak 2011

Ekainak 30 osteguna

Haurren Eguna

10:00 Umeen egunaren hasiera, jaietako kanta eta dantzarekin.
10:00-13:00 Herri kirolak HHkoentzat.
Ginkana LH eta DBHkoentzat.
Puzgarriak.
Jolas parkea: giza futbolina, Txu-txu tren, zezen mekanikoa, quads, errokodromoa eta tirolina.
13:00-13:30 Buruhandiak trikitilariekin.
13:30 Bazkaria (norberak berea ekarrita, edaria eta postrea banatuko da).
15:00-17:00 Tailerrak: makilajea, pinak, malabarak eta pinpilin pauxa. Puzgarriak.
Jolas parkea: giza futbolina, Txu-txu tren, zezen mekanikoa, quads, errokodromoa eta tirolina.
16:30 Igel Joko txapelketa Artzabalen.
17:00 Txokolatada.
17:00 Txosnen irekiera eta gazte olinpiadak (16 urtez gorakoentzat) Askatasuna plazan.
17:45-19:00 Ikuskizuna frontoian: Gramola.
19:00 Buruhandiak txistulariekin.
19:30 Bertso triki poteoa.
20:00 Txupinazoa Usurbil Zero Zabor taldearen eskutik, frontoi inguruan. Ondoren, sabel dantza eta saloi dantza erakustaldia frontoian.
23:00 Kontzertua txosnetan: Itziarren Semea, Egurrata Kitto eta Willis Drummond.

Uztailak 1 ostirala

Oilasko Biltzaileen Eguna

05:30 Oilasko biltzaileen gosaria.
09:00 Esnadeia trikitilariekin.
10:30 Haur eta gaztetxoentzako IX. Pintura Lehiaketa (materiala bertan banatuko da).
11:30 Toka txapelketa Artzabalen.
13:00 Pintura Lehiaketako sari-banaketa.
14:00 Oilasko biltzaileen bazkaria.
Ondoren, oilasko biltzaileen jokoak.
16:00 Ur-bataioa Oiardo Kiroldagian.
18:00 Buruhandiak Zumartxan txarangarekin.
19:00 Tortilla patata txapelketa txosnetan.
19:00-21:00 Helduen danborrada.
21:00 Herri afaria txosnetan.
23:30 Kontzertua frontoian: Governors, Ze Esatek! eta Hotzikara.
24:00-01:00 Helduen danborrada.
01:30 DJ Bull txosnetan.
02:00 Platano dantza txosnetan.

Uztailak 2 larunbata

Santixabel Eguna

09:00 Esnadeia txistulariekin.
09:30 VII. Kayak jaitsiera Alirin.
10:00-11:30 Bola Txapelketa irekia.
11:00 Meza Nagusia.
12:00 Umeen danborrada udaletxe aurretik hasita.
12:00 Kantujira Kuxkuxtu taldearekin. Jarraian, lore eta salda banaketa dema plazan.
14:30 Kantu-zikiro-jana txosnetan.

Ondoren, kantu emanaldia.

16:30-17:30 Santixabel Bola Txapelketa irekia.
17:00 XXXVIII. Pilota Txapelketako finalak (gizonezkoak).
18:00 Buruhandiak Zumartxan txarangarekin.
20:00 Euskal presoek eskubideen aldeko ekitaldia.
22:00 Bertso-saioa frontoian. Bertsolariak: Egaña, Lizaso, Lujanbio, Colina, Iturriaga, Azpiroz.
Gai-jartzailea: Imanol Arabaolaza "Txatxari". Jarraian, Santixabel Bertso-paper Lehiaketako sari banaketa.
Ondoren, Triki ta Ke frontoian.
01:00 Karaokea txosnetan.

Uztailak 3 igandea

09:00 Esnadeia dultzaineroekin. Egun osoan, dultzaineroak.
11:30 Zanpantzarrik.
11:30 Herri kirolak: aizkolariak.
12:00 Meza Nagusia.
12:30 Aoizko erraldoiak eta Murtxanteko jotariak.
13:00 Herriko dantzarien emanaldia.
14:00 Jubilatuen bazkaria.
15:30 XV. Mus txapelketa txosnetan.
18:00 Buruhandiak eta Usurbilgo eta Aoizko erraldoiak dultzaineroekin.
18:30 Herri kirolak. Usurbilgo harria, Ondoren, giza-proba.
19:00 Skandalue elektro txaranga.
23:00 Jaien bukaera azken trakarekin.
23:30 Herriko musika taldeen bertso-gaua txosnetan.

Kiroltasuna txapeldun

Joan den ekainaren 25ean jokatu ziren Usurbil Cup txapelketako final saioak. "Champions"eko abesti ezagunak lagunduta taldeka sartzten joan ziren frontoira sariak jasotzera. Talde bakoitzeko jokalariek domina bana jaso zuten eta haietako askok, baita gustura asko altxa zuten kopa ederra ere. Amaitzeko, Mikel Laboa plazan talde guztien argazkia ateratzeko aukera izan zen. Bertan erretratatua geratu zen, Usurbil FT-k antolatzen duen ekimenak zer nolako parte hartzea sustatzen duen. Jendetsua bezain koloretsua.



USURBIL CUP TXAPELKETAN PARTE HARTU DUTEN GUZTIAK.





Usurbilgo XXXIX Pilota Txapelketako finalak, larunbatean

Pasa den asteburuan argitu ziren Pilota Txapelketako finalak. Jubeniletan, Urretxuko Gallurralde-Erostarbe eta Leitzako Olano-Tolosa izan ziren finalera sailkatu zirenak. Nagusien mailan, Errasti-Altuna usurbildarrak finalaren atarian geratu dira.

Nagusien mailan, Urbieta-Galarraga Bidegoianeko bikoteak aise irabazi zion Bergarako bikoteari, Muguruza-Mitxeleneri. 22-12 izan zen finalerdiko emaitza.

Beste finalerdian, txukun aritu ziren usurbildarrak, Errasti-Altuna. Baina Iruñeko Alegria-Uharte bikotea sailkatu zen 22-14ko emaitzarekin.



17:00ETATIK AURRERA JOKATUKO DIRA.

Uztailak 2 larunbata, 17:00etan

JUBENILAK

Gallurralde-Erostarbe / Olano-Tolosa
(Urretxu) (Leitza)

NAGUSIAK

Urbieta-Galarraga / Alegria-Uharte
(Bidegoien) (Iruña) (Amaiur)

Amaitu da Akerra Gaztetzeko futbol txapelketa



Txiriboga taberna taldeak irabazi du Akerra Gaztetzeko futbol txapelketa. Catenaccio Strapazzate geratu da bigarren, eta hirugarren, Lokal Crew. Irudian, martxotik ekimenean parte hartu duten txapeldunak eta antolatzaileak, pilotalekuan ateratako argazkian.

Itaya gazte taldearen bilera

Joan den ekainaren 17an jendaurrean aurkeztu ondoren, bilera deitu du Itaya gazte taldeak datorren asterako. Uztailaren 6an, asteazkenez, 19:00etan Etumeta-AEK euskaltegiko lokalean. Aurkezpen ekitaldian iragarri zuten moduan, jada egin duten gazteen diagnosia abiapuntu gisa hartuta, lan taldeak sortu eta eginiko lanketan detektatu dituzten arazoei aurre egiten hasteko jardunari helduko diote. Aurrera begira, gazte programa bat osatu nahi dute.

Jaietan, baserritarren zapiak erabiltzeko deia

Baserritar jantziko zapiarekin ikalera herriko festez gozatzera irteteko dei egin dute Akerra Gaztetzeko kideek. Modu horretan, egunotan ospatuko diren Santixabeletan ere, kontsumismoari muga jarri nahi diote ekimen honen bidez.

Aginagako ludotekako ate irekien eguna, atzeratua

Ostegun honetan, ekainaren 30ean Aginagako ludotekan ospatzekoa zen Ate Irekien Eguna irailaren 8ra arte atzeratu dute. Egun berean, Santixabeletan Haurren Eguna izango delako hartu dute aipatu erabakia antolatzaileek, Antxomolantxa Elkarteok. Hasiera batean ordea, egitaraua bere horretan mantenduko dute.

Iraileko bigarren ostegunean, goizez haur jokoak ospatuko dira, eguerdian bazkaria eta arratsaldean, antzerki emanaldia burutuko da.

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25

Josue
Igeltseritza
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13
Okindegia - Gozotegia
LABE-GOXO

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
663 08 76 71 • 943 24 34 65

Agenda!

Ekainak 30 osteguna
- **Flash mob dantza saio irekia**
20:00etan Dema plazan.

Uztailak 6 asteazkena
- **Itaya gazte taldearen bilera**
19:00etan Etumeta-AEK euskaltegian.

Uztailak 7 osteguna
- **Pirinioetara irteera Andatzarekin**
19:00etan udaletxe ondoko lokalean bilera.

Goardiako farmaziak

Ekainak 30, osteguna
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 1, ostirala
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 2, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 3, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 4, astelehena
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Uztailak 5, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Uztailak 6, asteazkena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Uztailak 7, osteguna
Rodríguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Uztailak 8, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Uztailak 9, larunbata
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Uztailak 10, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

* *Larunbatetan, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00etatik 13:30era.*

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpurua, Latxunbe Berri, 11, Hernani
Telefono zenbakia: 943 336 077.

Datorren ostegunean bilera, Pirinioetako asteburu pasa prestatzeko

Datorren asteburuan, uztailaren 9 eta 10ean Pirinionetara irteera antolatuko du Andatza Mendizale Elkarteak. Txangoan parte hartu nahi duenak, izena emateko uztailaren 4ra arteko epea du. Antolakuntzatik berri eman dutenez, "ikasleek 20 euro ordaindu beharko dute izena ematerakoan eta gainontzekoek 30 euro, aterpeko pentsio erdia eta autobusa barne direlarik. Aurretik 10 euro jarriko dira".

Dirua, mendizale elkarteak Kutxan duen honako kontu korrante zenbakian ingresatu behar da:

2101.0069.16.0121883656.

Izen ematerakoan, aipatu moduan, 10 euro ordaindu beharko dira.



ANDATZAKOAK, MARTXOAN EGINDAKO IRTEERA BATEAN.

Bilera, ostegunean

Asteburu pasari buruz hitz egiteko bilera antolatu dute Andatzakoek uztailaren 7rako, 19:00etan udaletxe ondoan duten lokalean. Uztailaren 9an goizeko 6:30etan irtengo dira autobusez Oiardo Kiroldegi paretik.

Matrikulatzeko garaia, Lanbide Eskolan

Erdi eta Goi Mailako zikloak eskaintzen dituen Lanbide Eskolak matrikulazio epea astelehenean zabalduko du. 2011-2012 ikasturteari begirakoa, uztailaren 4tik 8ra izango da. Zubietan kokatua dagoen ikastetxeko idazkaritza bulegoa, ordutegi honetan zabalduko dute egun horietan: astelehenetik ostegunera, 9:00-14:00 artean eta 16:00-18:00 artean. Ostiralean goizez bakarrik, 9:00-14:00 artean. Informazio gehiago 943 364 600 (Juanjo Barberorengatik galdetu) edo lhusurbil.com webgunean. Administratiboa, elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa eta ura eta energia, produkzio zerbitzu eta mantenimendu ikasketak eskaintzen ditu Lanbide Eskolak.

Ostiralean hasiko dira Zubietako Udako Txokoak

Uztailaren 1ean Zubietako Udako Txokoei hasiera emango zaio Eskola Txikietan. Ordutegia 9:30etik 13:30era izango da.

Ordaindu beharreko kuota:

Eskola txikitan matrikulatuta dauden haurrak:

Hilabete osoa 100 euro.

Hamabostaldia 70 euro.

Beste eskoletan matrikulatuta dauden haurrak:

Hilabete osoa 110 euro.

Hamabostaldia 80 euro.

Kuota 2101 0048 21 0004157517 kontu korrontean sartu beharko da.

Kutxako ziuertagirikoa azalpenean, haurraren izena eta abizena jarri.

AITOR ALKORTA

Arotz lanak, era guztietakoak
Sukaldeak
Furgonetak norberaren gustora egokituak
Furgoneten homologazioa

629 789 288
alkortaitor@yahoo.es

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ETXEBIZITZA

- Alfaron dudana pisua zonalde honetan etxebizitza duen norbaitekin trukatu nahiko nuke. 941 182 562.
- Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxe baten bila nabil (ekainetik aurrera). 622 856 181.
- Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. Telefonoa: 699 720 940.
- 60 metro karratuko etxea salgai Santuenea 26an. Sukalde handia, egon gela, 2 logela, komuna, 2 balkoi eta 3 leiho, dena kanpokaldera ematen duena. Ganbara eta 12 metro koadro trasteroa. 185.000 euro. 666539284
- 85metro karratuko etxebizitza bat alokatzen dit Usurbilgo kaxkoan. 3 gela, bi terraza eta trasteroa. Bermea eskatuko da. 616064059 (gauetan deitu).
- Usurbilen alokairuan dagoen pisu baten bila nabil. Idioia 695733535.
- Kaxkoan pisua alokatzen da. 2 gela, sukalde, sala eta komona. Tlf: 670070562
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan, 2 gela, sala, sukalde, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tlf: 686969112
- Kaxkoan etxebizitza salgai. Hiru logeladuna, bi komun eta trasteroarekin. 685 731 792.
- 90 metro karratuko pisu bat daukagu salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukalde, bi komun eta 7 metro karratuko ganbara bat. Oso eguzkitsua eta bizitzaren jartzeko moduan dago. 699680265 (eguerdin edo 20:00etatik aurrera deitu).
- Etxebizitza salgai Santuenea. Hiru logela, sukalde, komuna. 130.000 euro. 665 736 896 (Inaki).
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrea, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukalde-sala. 661 679 691.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegi ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaro. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 km-ra. 2 logela, egongela tximenearekin, sukalde, komuna, portxea. 675702428 (gauze).
- Muna Lurra kalean etxe bat alokatzen da. Eguzkitsua eta berritua. 637225620.
- 95metro etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baseri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Ford Focus bat salgai, 2000. urtekoa. 126.000 km. Egoera onean. 617 772 036.
- Peugeot Partner salgai. Egoera onean, ohe eta guzti.

Gazteentzat egokia. 667 830 484.

- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. 669645585 edo 943365191.
- 5800 metro karratuko lur eremua salgai Usurbilen, 150 sagarrondorekin. Deitu: 943 361 463
- Nissan Almera salgai. Matrikula: SS-BG. Prezioa: 1.500, IAT (ITV) pasea du. 615 798 479.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- 50cc-ko motorra salgai. 2 urte, oso kilometro gutxi. Betei garajea, ondo zaindua. 622369646.
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Ostiral eta larunbatetarako zerbitzaria behar da Xarma tabernarako. Interesdunak bertara agertu daitezke, edo 943 368 771 telefono zenbakira deitu.
- Iratxo taberna pizza banatzaile baten bila gabilta. Banaketa afaritarako garaian egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabilta. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrek emateko prest egongo al zinateke? Hala bada, pasa zaitez Udaregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.

Lan-eskaintzak

- Emakume bat eskaintzen da, interna moduan lan egiteko. Erreferentzia onak. 661 091 863.
- Umeak zein helduak zaintzeko edo ostalaritzan aritzeko neska bat eskaintzen da. 616376591 / 943243119
- Neska esperientziaduna eta ikasketa titulatuak egina pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko, garbiketa lanak egiteko eta ostalaritza lanetan aritzeko eskaintzen da. 666773813
- Orduka umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko eskaintzen da neska bat. 663294970
- Aleman eta Ingeles nitiboak, klaseak ematen ditut Usurbilen. Interesatuak deitu 622 856 181.
- Etxeko lanak egiten edo haurrak zein pertsona helduak zaintzen edo dendari lanetan aritzeko nintzateke goizez. 620 093 697.
- LHko irakaslea udan klase partikularrek emateko prest. 658 706 443.
- Garbiketa lanetan edo dendari moduan lanean aritzeko neska bat eskaintzen da. 626618097.
- Herriko emakume euskaldun bat eskaintzen da pertsona helduak eta gaixoak zaintzeko. Ordu-tegi malgua (egunez zein gauzez) eta prezio ekonomikoak. 687348223.
- Emakume esperientziaduna eta erreferentziak eskaintzen da gauetan adineko pertsonak zaintzeko. 618410123
- Emakume bat eskaintzen da interna moduan adineko pertsona zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. 635267221
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko edo adineko pertsonak zein haurrak zaintzeko. Orduka edo interna moduan aritzeko. 633709347.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrek ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo kalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil edo inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362.
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igeltsaritza

lanetan aritzeko, 677593772.

- Etxeko lanak egiteko prest nago, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanearako. Esperientziaduna. 658107757
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411.
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketa lanak egingo nituzke. 656446835.
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Etxeko lanak egiteko neska bat prest. 630 768 325.
- Pintore/burdinlari gisa lan egiteko prest. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrek emateko prest, neska gazte esperientziaduna. LH-tik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- GPS Tomtom berria salgai. 600 244 126.
- Ume kapota bat jaso zuen Udaltzaingoko Zubiaurrena 2an (Otar Goxo parean). Galdu duenak Udaltzaingean jaso dezake.
- Akordeioa saltzen dut. Gutxi erabilia. 943 370 344.
- Katakume bat hartuko nuke gustora baserriarako. 666539284
- Masajeak ematen diut: reflexologia, siatsu, masaje orokorra... 943 365 079 deitu eta utzi zure mezua.
- Bi haur dituen familia gara eta Asturias edo Cantabrikan kanpin batean dagoen mobilhome edo karabana alokatuko genuke abuzturako. 675 007 048 (Garbiñe).
- Usurbil eta inguruetan, belardiak behar dira, belarra jasotzeko. Tel: 607457004. Dani
- Umea kotxean eramateko ziurtasun aulkia (10 kilotik gorakoa eta etzaten dena) erosiko nuke. Tlf: 658721427
- Kamera digital bat desagertu zitzaigun liburategian, martxoaren 11n. Askio eskertuko da bueltatzea. 686 554 145 (Ana).
- Sukaldari bat eskaintzen da famili nahiz lagun arteko bazkariak antolatzeko eta prestatzeko etxetan, elkarte gastronomikoetan..... 670 410 273.
- Lehenengo jaunartzeko soineko bat daukat salgai. Interesatuta bazude: 669645585 / 943365191.
- 11 husky siberiar txuri oparitzeko. 649906678.
- Andatza mendian (Puelako bidean) mendiko txamarra mutilarena, urdin iluna, galdu dut. 657702038.
- Hemengo intxaurrek salgai. 943 67 11 60.
- Wii kontsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopiak kargatu ahal izateko. DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. 635729637
- Aiako babarruna salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki).
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113



Zorionak Anjel! Ekainaren 24ean, 4 urte egingo dituzu. Muxu pilo bat, Unax, Oihan, June eta Aratzen partez.



Zorionak Malen! Zenbat urte egin dituzu, ponpoxa? Pila-pila patata tortila! Ja,jaja! Muxu goxo-goxoak Izar, Iratxe, Asier, Olatz, Xabi, Josune, Oskar, Patxi, Txingua eta Zaloaren partez!

HILDAKOAK

Juan Martija Macazaga Ekainaren 22an hil zen 61 urterekin, Kalezarren



Zorionak koadrila!! Nahiz eta udaran bete urteak eta agian ez ikusi, ondo pasa zuen eguna eta laister arte!!

Oharrak, zorion agurrak, jai edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 12:00etan. E-posta: erredakzioa@noaua.com
*Jaiotzen datuak Usurbilgo Bake Epaitegian bakarrik hartzen ditugu

HILDAKOAK

Mari Karmen Aierza Gorriti ekainaren 22an hil zen 58 urterekin, Kalezarren



Interneten ere aurkituko gaituzu
NOAUA! Usurbildarren zerbitzura



twitter



<http://twitter.com/noaua>



facebook

<http://www.facebook.com/noaua>



You Tube



<http://www.youtube.com/noauatb>



Noaua!!

<http://www.noaua.com>



www.noaua.com



EDERTU ZAITEZ!



L'Oréal PROFESSIONNEL

Ioli Lizarralde
Ileapaindegia • Estetika Zentroa

BERRIA!
KERATINAKO TRATAMENDUA
Ile-kizkurra leuntzen du,
kizkurdura kentzen du,
ilearen hidratazioa, distira asko
30 urte azpikoek %10 deskontua

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971



Jwar ESTETIKA

Zure azala zaintzen dugu
emoizu argia udara honetan

Natura Bissé

munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Maite eta Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626 603 600



PROMOZIOAN **KABITAZIOA** INFORMA ZAITEZ!

Zure gorputza kirurgiarik gabe modelatzen duen teknika

Bai GIZON eta EMAKUMEETAN emaitzak:

- Liposukzio efektua
- Zelulitisaren desagertzea
- Koipe lokalizatua gutxitu egiten da
- Gorputzaren silueta modelatzen du
- Azala leundu egiten du
- Tejidua berrindartzen ditu

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Nagusia 8, USURBIL 943 56 56 41 (egun guztia irekia)
Kaltateko produktuetan esatitakoak eta estetika lanren dituz



Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta Etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462



GOLDWELL ELUMEN

mistoa

Kolorazioetan teknika
berriak eta iraunkorrak

Zubiaurrenea 1. © 943 361 951